

**5. artikulua.- Ordaintzeko era**

Ordainketa sarrera edo bonua eskatzeko garaian egingo da, eta eskudiruz edo zordunketa/kreditu txartelen bitartez ordaindu beharko da, museoetako bulegoetan.

**6. artikulua.- Kudeaketa eta administrazioa**

Prezio publiko hauen kudeaketa eta administrazioa Arabako Foru Aldundiari dagozkio, eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren bitartez egingo ditu.

Bigarrena. Aldundiaren museoetarako sarrerak saltzeko sistema martxan ipintzeko beharrezkoa den administrazio tramitazio guztia bete eta garapenerako foru agindu egokiaren bidez onartu eta gero jarriko da indarrean dekretu hau.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 28a.- Diputatu Nagusia, Javier de Andrés Guerra.- Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

**Artículo 5.- Forma de pago**

El pago se realizará al solicitar la entrada o bono y será abonada en efectivo o mediante tarjetas de débito/crédito, en las dependencias de los Museos.

**Artículo 6.- Gestión y Administración**

La gestión y administración de estos precios públicos corresponde a la Diputación Foral de Álava, que la llevará a través del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

Segundo. El presente Decreto entrará en vigor una vez cumplimentada toda la tramitación administrativa necesaria para la puesta en marcha del sistema de venta de entradas en los Museos de Diputación y aprobada mediante la oportuna Orden Foral de desarrollo.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, 28 de febrero de 2012.- El diputado General, Javier de Andrés Guerra.- La diputada de Euskera, Cultura y Deporte, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak***EKONOMIA SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

1364

**66/2012 ERABAKIA, otsailaren 28ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da Arabako Foru Aldundiaren bulegoen eta erregistro presentzialen ordutegia.**

Uztailaren 13ko Diputatuen Kontseiluaren 622/1999 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren unitate organiko guztientzat jendea atenditzeko gutxieneko eta denentzako ordutegia ezarri zen. Alabaina, xedapen horretan ez zen zehaztu zeintzuk izango ziren ordutegi bereziko egunak, ez eta egun horietan herritarrak atenditzeko zein ordutegi bete behar zen ere.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluko 6. paragrafoan xedatzen denez, administrazio publiko bakoitzak zehaztu behar du bere erregistroak zein egunetan eta zein ordutegiarekin egongo diren irekita. Halaber, artikuluko beraren 8. paragrafoan ezarritakoaren arabera, administrazioek erregistro bulegoen (beraienak zein hitzartuak) zerranda argitara eman behar dute, eta hori gaurkotuta eduki.

Maiatzaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 37/2011 Dekretuak, Arabako Foru Administrazioeko agiriaren erregistroen erregelamendua onartzen duenak, zera xedatzen du: Aldundiaren erregistro presentzialak ALHAOn eta Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan argitaratuko den ebazpenean ezarritako egun eta orduetan egongo dira irekita.

Horregatik guztiagatik, eta barne antolamenduaren eta herritarrekiko komunikazioaren hobekuntza planen baitan, egoki da herritarrak aurrez aurre atenditzeko gutxieneko eta denentzako ordutegia gaurkotu eta osatzea. Hori horrela, ordutegi bereziko egunak zeintzuk diren eta herritarrei Arabako Foru Aldundiaren bulegoen eta erregistro presentzialen ordutegien berri emateko bideak zeintzuk diren gehituko dira.

Horregatik, Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

**ERABAKI DUT**

Lehenengoa.- Arabako Foru Aldundiaren bulegoen eta erregistro presentzialen 2012ko ordutegiak ezartzea. Hona hemen:

- a) Ordutegi orokorra, astelehenetik ostiralera (larunbat, igande, jaiegun eta ordutegi bereziko egunetan izan ezik): 08:15etik 14:30era.
- b) Ordutegi berezia: 09:15etik 12:30era.

Hasiera batean, ordutegi bereziko egunak dira Gabonekin, Errege egunarekin eta Gasteizko jaiekin lotutako zenbait egun, eta Olarizu eguna.

*Acuerdos del Consejo de Diputados***DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y ADMINISTRACIÓN FORAL**

1364

**ACUERDO 66/2012, del Consejo de Diputados de 28 de febrero, que aprueba el horario de apertura de las oficinas y de los registros presenciales propios de esta Diputación Foral.**

El Acuerdo 622/1999 del Consejo de Diputados de 13 de julio, establecía el horario mínimo y común de atención al público para todas las unidades orgánicas de la Diputación Foral de Álava. Sin embargo, dicha disposición no determinaba ni los días de horario especial ni los horarios de atención a la ciudadanía en los mencionados días.

El artículo 38 apartado 6 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común, dispone que cada Administración Pública debe determinar los días y el horario en que deben permanecer abiertos sus respectivos registros, estableciendo, en el apartado 8 del mismo artículo, la obligación de las distintas Administraciones de hacer pública y mantener actualizada una relación de las oficinas de registro, tanto propias como concertadas.

El Decreto 37/2011, del Consejo de Diputados de 3 de mayo, que aprueba el Reglamento de Registros de documentos de la Administración Foral de Álava determina que los Registros presenciales propios permanecerán abiertos en los horarios y días que se establezca por resolución que será publicada en el BOTHA y en la sede electrónica de la Diputación Foral de Álava.

Por todo ello, y dentro de los planes de mejora de la organización interna y comunicación con la ciudadanía, procede actualizar y completar el horario mínimo común de atención presencial a la ciudadanía, incluyendo los días de horario especial, así como los canales de comunicación para informar a la ciudadanía del horario de apertura de las oficinas y de registros presenciales propios de la Diputación Foral de Álava.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Promoción Económica y Administración Foral, previa deliberación del Consejo de Diputados reunido en el día de la fecha,

**ACUERDO**

Primero.- Establecer como horarios de apertura de las oficinas y de registros presenciales propios de la Diputación Foral de Álava, durante el año 2012, los siguientes:

- a) Horario general, de lunes a viernes, exceptuando sábados, domingos, festivos y días de horario especial: de 8:15h a 14:30h,
- b) Horario especial, de 9:15h a 12:30h.

Son días de horario especial, en principio, diversos días relacionados con las fiestas navideñas y de Reyes, fiestas de Vitoria-Gasteiz y día de Olarizu.

2012. urtean, honako hauek izango dira ordutegi bereziko egunak: urtarrilaren 5a; abuztuaren 6a, 7a, 8a, 9a eta 10a; irailaren 10a; abenduaren 24a eta 31.

Funtzio publikoaren arloan eskumena duen diputatuen foru aginduaren bidez ezarriko dira urtero foru aldundi honetan ordutegi bereziko egun izango direnak. Foru agindu hori ALHAOn argitaratuko da.

Bigarrena.- Eskaintzen duten zerbitzua berezia delako, aurreko idatz zatian ezarritako ordutegitik kanpo geratzen dira honakoak: Kultura Etxea, museoak, hirugarren adinekoen elkartegiak eta basozainak. Horientzat, eskaintzen dituzten zerbitzuen araberrako ordutegiak zehaztuko dira.

Hirugarrena.- Erabaki honetan ezarritako egunak eta ordutegiak honela kontsulta daitezke:

- elektronikoki, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoaren bidez.

- aurrez aurre, Arabako Foru Aldundiaren edozein egoitzatan.

- telefono bidez, 945 18 18 18 zenbakira deituz.

Laugarrena.- Salbuespen gisa, leihatilan egitekoak diren administrazio izapideetarako, erabaki honetan araututakoez bestelako ordutegiak ezarri ahalko dira jendea aurrez aurre atenditzeko, betiere kanpainaren ezaugarriak direla-eta jendeari arreta hobea eskaintzeko horrela egitea komeni denean. Kasu horietan, saileko diputatu titularren berriazko baimena beharko da.

Bosgarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 28a.- Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua, LUIS VIANA APRAIZ.- Zerbitzu Orokorren zuzendaria, LUIS MURO GARCÍA.

Para el año 2012 son días de horario especial los días 5 de enero, 6, 7, 8, 9 y 10 de agosto, 10 de septiembre y 24 y 31 de diciembre.

Por Orden Foral del Diputado competente en materia de función pública se fijarán anualmente los días señalados como de horario especial en el ámbito de esta Diputación Foral. Dicha Orden Foral será publicada en el BOTHA.

Segundo.- Quedan excluidos del horario de atención establecido en el apartado anterior, atendiendo a las especiales características del servicio prestado, la Casa de Cultura, los Museos, las Aulas de la Tercera Edad y Guardería Forestal, para los que se determinarán horarios acordes con los servicios respectivos.

Tercero.- Las fechas y horarios establecidos en este Acuerdo podrán consultarse:

- electrónicamente, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Álava,

- presencialmente, en cualquiera de las dependencias de la Diputación Foral de Álava,

- telefónicamente, en el 945 18 18 18.

Cuarto.- Con carácter excepcional podrán establecerse horarios de atención presencial al público, para trámites administrativos tipificados de ventanilla, diferentes de los regulados en el presente Acuerdo, cuando se trate de determinadas campañas que en atención a un mejor servicio al público así lo aconsejen. En estos casos será necesario disponer de la autorización expresa del Diputado titular del Departamento.

Quinto.- El presente Acuerdo será publicado en el BOTHA, si bien surtirá efectos desde 1 de enero de 2012.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2012.- El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- El diputado de Promoción Económica y Administración Foral, LUIS VIANA APRAIZ.- El director de Servicios Generales, LUIS MURO GARCÍA.

## Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

1321

**Diputatuen Kontseiluak 2012ko martxoaren 1eko aparteko bilkuran onartutako xedapenen laburpena.**

- **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

76/2012 Erabakia, martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartzen da Aldundiaren iritzia, Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 46/1989 Foru Araua aldatzeko foru arau proposamena Biltzar Nagusiek aintzakotzat hartzearen aldekoa.

77/2012 Erabakia, martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartzen da Aldundiaren iritzia, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua aldatzeko foru arau proposamena Biltzar Nagusiek aintzakotzat hartzearen aurkakoa.

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

1313

**Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren zitazioak eta egintza administrazioak jakinaraztea.**

Administrazioari ez dagozkion arrazoiengatik jakinarazpena egitea ezinezko izan da. Hortaz, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko

## Anuncios

### SECRETARÍA GENERAL

1321

**Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión extraordinaria celebrada el 1 de marzo de 2012.**

- **Acuerdos:**

DEPARTAMENTO DE DIPUTADO GENERAL

Acuerdo 76/2012, del Consejo de Diputados de 1 de marzo, que aprueba el criterio de esta Diputación favorable a la toma en consideración por las Juntas Generales de la Proposición de Norma Foral de modificación de la Norma Foral 46/1989 de 19 de julio, del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

Acuerdo 77/2012, del Consejo de Diputados de 1 de marzo, que aprueba el criterio de esta Diputación contrario a la toma en consideración por las Juntas Generales de la Proposición de Norma Foral de modificación de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava.

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCION DE HACIENDA

1313

**Notificación de citaciones y actos administrativos del Servicio de Inspección de Tributos.**

En virtud de lo dispuesto en el artículo 108 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, (Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero)